

## EH BILDUK LAUDIOKO UDALEAN ELKARLANA SUSTATZEN ETA HERRITARREN BIZITZAK HOBETZEN JARRAITUKO DUELA BERRESTEN DU

Gobernagarritasuna bermatzeko lanean jarraituko dugu, Omniarekin zein udal korporazioa osatzen dugun zinegotzi zein herritar guztiekin.

Asteazken honetan, Omniak oposiziora pasatzeko hartutako erabakiaren, eta, aldi berean, etorkizuneko gaien tratamenduan garatutako adostasun-ildoari lehentasuna emateko konpromisoaren berri eman genuen. EH Bildu elkarlanean arituko da Omniarekin adostutako proiektuetan aurrera egiteko eta hartu duten erabakiarekikogure errespetu osoa adierazi nahi dugu.

Laudioko EH Bilduk, fase berri honetan sartu eta, herritarrak ardatz nagusi gisa hartuta, gobernantza kooperatiboaren eredua sustatzen jarraituko du. Azken urte honetatik ikasgai garrantzitsuak jaso ditugu eta orain arte Omniarekin egindakoari balioa eman nahi diogu, bi alderdiok batera, hainbat proiektu aurrera ateratzeko gai izan garelako. Horregatik, haiekin elkarlanean jarraitzeko konpromisoa mahaigaineratzen dugu. Orain, egoera berri honetan, gogotsu eta arduraz heltzen diogu erronka honi.

Laudioko herritarren bizitzak hobetzeko lanean jarraituko dugu; eredu parte-hartzaileak txertatzen, ezberdinen arteko akordioak lortzeko ahalmenari balioa ematen alderdi ezberdinen arteko elkarlana bultzatuz, udal korporazio eta herritar ororekin batera. Azkenik, herritarrak guregan erakusten ari diren babesa eta konfidantza eskertzen dugu



## EH BILDU LAUDIO REAFIRMA SU COMPROMISO DE IMPULSAR LA COLABORACIÓN EN EL AYUNTAMIENTO Y DE SEGUIR MEJORANDO LAS VIDAS DE LA CIUDADANÍA

Seguiremos trabajando para garantizar la estabilidad en nuestro gobierno, junto con la ciudadanía tanto con Òmnia como con toda la concejalía de la corporación municipal.

Este miércoles informamos de la decisión de Omnia de pasar a la oposición y, al mismo tiempo, del compromiso de dar prioridad a la línea de consenso desarrollada en el tratamiento de los asuntos futuros. EH Bildu va a colaborar para avanzar en los proyectos estratégicos acordados con Òmnia y, a su vez, queremos mostrar nuestro máximo respeto a la decisión que han tomado.

EH Bildu Laudio, seguirá impulsando un modelo de gobernanza cooperativa en esta nueva fase en la cual la ciudadanía será su eje central. Este último año hemos aprendido lecciones importantes y queremos poner el valor todo lo logrado conjuntamente, ya que hemos sido capaces de sacar varios retos adelante. Por ello, queremos reafirmar nuestro compromiso de seguir colaborando con Omnia. Esta nueva situación, que supondrá un reto, la abordaremos con entusiasmo y responsabilidad.

Durante esta legislatura, seguiremos trabajando para mejorar las vidas de la ciudadanía de Laudio; manteniendo y profundizando nuestro modelo participativo, poniendo en valor la capacidad de llegar a acuerdos entre diferentes impulsando la colaboración, junto a todos grupos municipales y junto a la ciudadanía. Por último, queremos agradecer el apoyo y la confianza depositada en nosotros y nosotras.